

KANALAK

Bi talde bereizten dira atal honetan: komunikazio kanalak eta banaketa kanalak.

Gure zerbitzua bezeroarengan helarazteko hainbat iturri erabiliko dugu. Alde batetik, publizitatea, pertsonen mezua jasotzeko eta gure proposamen guztiak ezagutzeko. Publizitatea, modu eraginkorrenetako bat da kontsumitzaileengana iristeko, gaur egun mundu guztiak erabiltzen baitu teknologia informazioa lortzeko. Adibidez, irratirako iragarki txiki bat sortuko dugu non azalduko dugun nolakoa den gure elkarrearen funtzionamendua. Gure [web](#) orriaz gain, sare sozialetatik ere igaroko gara, jendea denbora gehien pasatzen duen lekua baita. Bestalde, ohiko metodoak erabiliko ditugu, hala nola publizitate-kartelak hiriko eta institutuetaiko leku jendetsuenetan jartzea.

Gainera, gure proiektua jendeari heltzeko, elkartea *Eustat* ren laguntza jasoko dugu. Haiek gure tailerrei buruz hitz egingo dute eta gure zerbitzua jasotzeko beharra duten gazteak gure zerbitzuetaz gosatzera bultzatuko dituzte.

Beste alde batetik, gure zerbitzuak zuzeneko banaketa kanalez baliatuko da, hau da, zuzenean gure bezeroei eskainiko diegu zerbitzuak bitartekarik gabe. Gure zerbitzua bezeroen etxeetan edo gizarte etxeetan eskainiko dugu, aurrez-aurreko komunikazioa erabiliz. Baita ere klaseak egingo ditugu ikastetxe publiko eta pribatuetan.

WEB ORRIA: <https://sites.google.com/losherranbhi.net/munberri/orri-nagusia>